

Berrikuntzako 'benchmarkina' Euskal Autonomi Erkidegoan



Iritzia

Mikel Navarro Arantegi

Orkestrako ikertzailea eta Deustuko Unibertsitateko ekonomia katedraduna

Ingelesa ikasteari behar baino beranduago ekin zion zion gizagaixoa honek behin eta berriaz hanka sartu izan du *false friends* deritzen hitzetan, hau da, ingelesetan eta gaztelaniaz, idazkera antzekoa izanagatik ere, esanahia guztiz bestelakoa dutenatan. Bada, antzeko zerbaite gertatu ohi zaie ekonomian oso jantzita ez daudenei, enpresamundutik maileguan hartutako zenbait hitzakin: lehiakortasuna, estrategia... eta *benchmarkina* hitzek enpresa munduan ez bezalako esanahia dute lurraldetan ari garenean. Berrikitan, Orkestrako eta Deustuko Unibertsitateko ikertalde batek berrikuntzako adierazlei eta benchmarkinari buruz idatziriko liburua argitaratu du Innobasquek. Bertan, benchmarkinaren inguruan hainbat argibide emateaz gainera, EAEko berrikuntzako sistemanen benchmarkina egiten da.

Baina gatozen harira, eta has gaitezen termino horren esanahia argitzen. Enpresa munduan, benchmarkina deritzo lehiakide hoberenei erreparatu eta norbera haien alderatzeari, betiere haien jokamolde onetatik ikasteko asmoz. Beste era batera esanda, besteek hobekien egiten dituzten gauzak ongi aztertu eta hortik ikastea, haien jokaera ezin hobe horiek geure organizazioan ere errepikatzeko.

Enpresa munduan sortutako kontzeptu hori azken hamarkadan Europako erregioei aplikatzen hasi zaie, Europako Batzordearen eraginez. Bruselaren leloa honako hau zen: hoberenei begiratu eta haiengandik ikasi zer eta nola egin behar duzuen.

Teoria eboluzionistak erakutsi duenez, ordea, berezkoa zaio berrikuntzari ziurtasunik eza; eta, horrelakotan, ez dago nonahi optimo edo hoberena den praktikari. Toki batean ongi funtzionatzen duenak ez du zertan beste tokian ongi funtzionatu. Praktika on horiek ezin dira, haien testuinguruaz ahaztuta,

hartu eta, besterik gabe, beste tokian batean txertatu. Aitzitik, lurraldetako bakoitzak bere berezitasunak ditu: historia, harreman eta kapital soziala, espezializazio sektoriala eta halakoak. Horregatik, hori kontuan hartzen ez bada eta denentzako neurri berdina proposatzen bada, porrota ziurtatua dago. Lurraldetako bidea bilatu behar dute. Are gehiago, bi lurraldetako testuinguru antzekoa izanik ere, beharbada helburu eta estrategia ezberdinak aukera litzakete; eta horrelakotan, haien harutzako neurrien eta politiken ego-kitasuna lurraldetako horiek finkatu-tako estrategiek mugatuko luke, eta ez neurri eta politika horien ustezko bikaintasunak.

Berrikuntzako literaturak benchmarkin naif edo inoz batetik erator litekeen kalteez ohartarazten digu. Guztiz bestelakoa den testuinguru batetik ezin daiteke praktika bat hartu, eta, bere hartan, kopiatu edo zure sistemaren txertatu. Esan nahi du horrek besteengandik ez dagoela ikasterik? Ez. Benchmarkin argi edo inteligente bat egitea ere badago: testuingurua ahaztu egiten ez duena. Besteen esperientziak bere lurraldetako mimetikoki kopiatu ordez, bere testuingurura egokitzen ahalegintzen dena, edo

besteen esperientzia bere hausnarketarako erabiltzen duena. Esan beharrik ez, zenbat eta testuinguru antzekoagoa izan bi lurraldetako, orduan eta errazagoa izango da batean ongi funtzionatutako gauzak bestean egokitztea eta, hortaz, elkarrengandik ikastea. Benchmarkin inteligentearen lehenengo araua hauxe izango litzateke: hasi alderatzen zure burua zureak bezalako baldintzak dituzten lurraldetako. Konparatu zure burua benetan konparagarriak direnekin. Euskal ekonomiak ia ez du inongo antzik Ile-de-France, Inner London eta eite horretako lurraldetakoaren. Beraz, irakaspen bila bagabiltza, nahiz eta lurraldetako horiek berrikuntzako adierazleetan oso gora egon, hobe dugu gure antzekoak diren beste eremu batzuei erreparatzea. Hori bai, antzekoak diren horien artean, begiratu arreta handiagoz hobekien ari direnei, zeren eta, eskuarki, gehiago ikasten baita ongi doazenetik, gaizki doazenetik baino.

Euskal Autonomia Erkidego (EAE) testuinguru antzekoa duten lurraldetako gehienbat Alemanian, Austrian eta Italiako iparraldean aurkitu ditugu gure ikerketan. Neurri apalagoan izanik ere, Frantzieta eta Spainian ere EAEren baldintza berdin-

tsuak dituzten lurraldetako batzuk daude —haien artean, Katalunia eta Nafarroa—. Eta Erresuma Batuan eta Suedian eskualde bana. Nahiz eta gure berrikuntzako politikan txitx ohikoa izan Finlandiari edota Stockholmari so egitea, herri edo lurraldetako horien testuinguruak ez du EAEkoaren antzik, eta, beraz, ez dira benchmarkinako aproposenak.

Gauza asko erakutsi digu erre-

**Hasi alderatzen
zure burua zureak
bezalako
baldintzak
dituzten
lurraldetako.
Konparatu zure
burua benetan
konparagarriak
direnekin. Euskal
ekonomiak ia ez
du inongo antzik
Ile-de-Francerekin
edo Inner
Londonenkin.**

ferentzia lurraldetako multzo horrekin egindako EAko benchmarkinak. Nahiz eta EAE ekonomia eta berrikuntzako adierazle- etan arrakastatsu ageri Europa-ko Batasuneko lurraldetako batez- bestekoarekin alderatzen denean, kontrako balorazioa at- ratzen da eta EAkoen balioa bat- tezbestekoaren azpitik ageri zai- gu antzeko testuinguru edo bal- dintzak dituzten lurraldetako al- deratzen badugu. Horrek esan nahi du EAkoen arrakasta eko- nomikoa neurri handi batean bal- dintza antzeko horiei —gehien- bat, espezializazio sektorial eta teknologikoari — zor zaia, eta ez horren beste hemengo jarduleen portaera bikainei.

Era berean, argitalpen zientifi- koetan eta patenteetan EAko emaitza kaskarrak zuritzetik alde- ra, gure ekonomiarako —metalean oinarritua — faktore horiek ezer gutxi balio dutela eta horre- gatik gure enpresek eta organiza- zioek kontu gutxi egiten dietela esan izan da. Bada, horre EAko testuinguru antzekoa —metalean espezializatuak eta abar- duen lurraldetako horrek arrazoiketa horren funtsik eza eta alor horretan EAko dauen ahultasuna agerian uzten dizki- gute: erregio horiek, biztanleko, EAko baino argitalpen eta patente gehiago dute. Hortaz, adierazle horietan EAko dauen emaitza txarra ez dator EAko ekonomiak berrikuntzak egiteko behar duen jakintza beste era bateko delako —zientzian egon ordez, esperien- tziar oinarrituta dagoelako —, baizik eta EAko sistema zienti- fikoak bere garapen mailari lego- kiokeena baino ahulagoa delako.



Langile bat Arteche-Nissin fabrika berrian, Gasteizen. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS